
**DVD-A****Izenburua:** 'Tormeseko itsumutila'.**Zuzendaria:** Juanba Berasategi. **Gidoia:** Mitxel Murua eta Joxan Muñoz. **Marrazkiak:** Jose Angel Lopetegí.**Iraupena:** Ordubete eta laurden. **Argitaletxea:** Elkar.**Juanba Berasategi**

ZUZENDARIA

«Kontakizun latza egiten da nobelan; beraz, asko moldatu behar izan dugu»

**N**obela ezağuna da *Tormeseko itsumutila*, oso ezağuna. Argitaratu zuten garaian, arrakasta itzela izan zuen. Inkisizioak debekatu egin zuen. Debekatu zutenetik berrehun urtera, nobela oso-osorik argitaratu zuten berriro. Geroztik, hizkuntza askotara itzulia izan da. 1929an, Orixek euskaratu zuen istorioa. Gaur egun eta aspalditik, eskoletan derrigorrezko irakurketa da *Tormeseko itsumutila*. Oso lan ezağuna izanağatik zinemara oso gutxitan eraman dutela uste du Berasategik, eta, hala xe, lan ezağunari buruzko animazioko filma egitera animatu da Lotura Films ekoiztetxea.

**Nola sortu zen ideia edo proiektua?**

Aspalditik harremana dut Andaluziarekin eta hango hainbat ekoizlerekin. Hala, bi herrialdeetarako egokia izan zitekeen lan bat egitea

pentsatu nuen. Halaxe bururatu zitzaidan *Tormeseko itsumutila* istorioa lantzea. Nobela oso ezağuna da; hainbat hizkuntzatar itzulia dago, eta ikastetxeetan derrigorrezko irakurketa da. Nik ere gatzetxo nintzela irakurri nuen. Istorio ezağuna izanağatik, ez da animazioko lanik egin haren inguruan. Hala, bada, lantzeko istorio polita izan zitekeela pentsatu nuen.

**Irakurri ez duenarentzat, zein istorio kontatzen da?**

Erlijioa eta pobrezia nagusi diren XVI. mendeko Espainiaren erretratu sarkastikoa egiten da. Oso istorio antiklerikala da. Giro horretan kokatzen da istorioa. Protagonista *Lazaro* izeneko mutil koxkorra da, bizirik irauteko maltzurkeria eta hamaika amarru erabiltzen dituen.

Berez, ordu eta laurden irauten du filmak, eta bi ataletan banatzen

da: Lazarak itsuarekin egiten duen denbora kontatzen da batean, eta Maquedako apaizaren istorioa bestean.

**Berez, nobela ez da haur literaturako lana. Asko moldatu behar izan duzue?**

Kontakizun gogorra eta latza egiten da nobelan; beraz, bere horretan ezin genuen aurkeztu. Hori horrela, asko egokitu eta moldatu behar izan dugu 14 urteko gatzetxoentzat. Istorioa eta gidoia moldatzeko, Mitxel Murua eta Joxan Muñozekin jarri ginen harremanetan. Orixeren *Tormeseko itsumutila* nobelaren euskarazko bertsioan oinarritu dira haiek gidoia prestatzeko. Orixek 1929an euskaratu zuen nobela anonimo eta ezağuna.

Istorioa gatzetxoentzat zenez, bi pertsonaia berri sortu ditugu, jatorrizko istorioan agertzen ez direnak: sağıu bat eta katu bat. Lazaro-

rekin eta itsuarekin batera, beste pertsonaia bat ere ageri da: serora. Zertxobait gatzetu dugu serora ere. Beraz, hainbat moldaketa egin dizkiogu jatorrizko istorioari, baina inoiz liburua irakurri duenari ezağunak egingo zaizkio filmeko pasarteak.

**Nolako filma atera zaizue?**

Animazioko filma da, eta bi dimentsiotan eğına dago. Jose Angel Lopetegirena da diseinua; hark egin ditu filmeko marrazkiak edo ilustrazioak. Filmeko dekoratuei eta pertsonaiei istorioa kokatzen den garaiko itxura ematen saiatu gara, hau da, XVI. mendekoa. Obra honen lehen animazioko lana izanik, garaian kokatzen saiatu gara, eta garaiko itxura mantentzen eta errespetatzen.

**Berez, euskaraz ekoitzi duzue, baina beste hainbat hizkuntzatan ere ikus daiteke filma, ezta?**

Bai, jatorrizko filma euskaraz eğına dago. Gero, baina, gatzelaniara eta ingelesera ere itzuli dugu. Eusko Jauraritzarekin eta EITBrekin batera, Andaluziako Juntarekin eta Canal Sur telebista katearekin koprodukzioan eğındako filma izanik, gatzelaniara itzuli behar genuen. Nazioarteko ateak zabaltzeko, berri, ingeleseko itzulpena eğıtea komeni da.

**Ikastetxeetara zabaltzea al da asmoa?**

Bai, berez gatzetxoentzako materiala da, eta, beraz, ikastetxeetan eğıtea gústatuko litzaiguke, baita liburuteğietan ere.

**Andaluzian jada estreinatu dute filma, ezta?**

Izatez, ezin dugu filma zinema aretoetan eman, telebistan eta saio ez-ofizialetan proiektatzeko lana delako. Lehiaketaz kanpo, Malagako jaialdian (Andaluzia, Espainia) eman zuten lehen aldiz filma, eta aretoa bete egin zen. Haur zein helduak izan ziren filma ikusten. Oso pozik geratu ginen emanaldi harekin, eta jendea gústura irten zen. Andaluziako Canal Sur telebista katean ere eman dute filma Gabonetan, eta harrera ona izan du. Ikusi beharko da hemen zer-nolako harrera izaten duen.